



“BAT-BATEKO ARGAZKIAK: ARRAZISMOA DESMUNTATZEN” ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

OINARRIAK:

- 1. PARTE—HARTZAILEAK:** Iruñean eta Iruñerrian bizi diren 18 urtetik gorakoek hartzen ahal dute parte lehiaketan, epaimahaikideek izan ezik.
- 2. LEHIAKETAREN GAIA ETA FUNTZIONAMENDUA:** beherago agertzen diren esaldietan inspiratutako argazkiak, hiriko eguneroko bizitzan kultura-aniztasunak duen bizikidetzan islatzen dutenak.

Argazkien betekizunak:

- Argazkiek lehiaketa honetan proposatzen diren esaldiak edukiko dituzte inspirazio-iturri.
- Iruñean egindakoak izan behar dira.
- Argazkiek gure hiriko eguneroko bizitzaren eszenak agertu behar dituzte.

25 argazki hautatuko dira, 5 esaldi bakoitzeko, eta gainerakoak bideo batean jasoko dira.

3. LANAK: Parte-hartzaile/elkarte bakoitzak **gehienez bi argazki aurkezten ahalko ditu**, eta horiek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, bai eta beste ezein lehiaketa, webgune edo bestelako bitarteko digital edo inprimatutan agertu gabeak ere. Parte-hartzaileek bere gain hartuko dute egile bakarrak guztiz izatea, hirugarrenek eskubiderik ez edukitzeko ardura eta lehiaketara aurkeztutako obretan irudi-eskubideengatik aurkez daitezkeen erreklamazio oro.

Argazkiak ezin izan behar dira ez elektronikoki ez bestelako biderik erabilita aldatu. Argazki-muntaketarik ere ez da onartuko. Kolorean eta argian zuzenketa txikiak egitea baino ez da onartuko. Zalantzarik edukiz gero, epaimahaiak Raw fitxategia eskatzen ahalko lioke egileari, hura egiaztatzeko.

4. AURKEZPENEA: Argazkien gutxieneko formatuak 25x32 cm izan behar du (mugikorrarekin egindako argazki batek izan ohi duen tamaina da) eta gehienekoak, 40x50 cm edo 300 pixel hazbeteko.

Euskarri informatikoan aurkeztu behar dira, JPEG formatuan eta 96ppp-eko bereizmenean. Argazkiaren tamaina 20 megatik gorakoa bada, abisatu Herritarren Partaidetza Alorrari argazkia bidaltzeko beste modu bat bilatzeko.

5. BIDALKETA: Lanak posta elektronikoki bidez igorriko dira, helbide honetara: participacionciudadana@pamplona.es

Kolektibo edo elkarte baten ordezkari gisa arituz gero, horren izena adierazi beharko da.

6. AURKEZTEKO EPEA: Lanak aurkezteko epea 2021eko otsailaren 8tik 27ra bitartekoa izan behar da. Ez da onartuko data hori baino geroago aurkeztutako lanik.



7. EPAIA: Epaimahaia 2021eko martxoaren lehen astean emanen du epaia eta antolatzaileek berariaz jakinaraziko diete hura hautatutako argazkien egileei. Halaber, Udalak informazio horren berri emanen du komunikabideetan, bere webgunean eta egoki jotzen dituen bideetan.

8. EPAIMAHAIA: Pertsona hauek osatuko dute epaimahaia: Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzia, Iruñeko Udaleko bi teknikari, argazkigintzan espezializatutako bi pertsona eta gizarte-ehunaren ordezkari bat.

Pertsona hauek **erakusketa baterako hogeita bost lan finalista** hautatuko ditu.

Erakusketa martxoaren 21eko astean zabalduko da, orduan ospatzen baita Arrazarengatiko Diskriminazioaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta martxoaren 15etik apirilaren 5era bitarte egonen da zabalik Kondestablearen jauregiko atarian.

9. EGILE—ESKUBIDEAK:

Lehiaketan parte hartuko duten pertsonak edo elkarteek datuen babesari buruzko agiria sinatu behar dute.

Hautatzen ez diren argazkiak egun horren harira egingen den sentsibilizazio-bideo batean agertuko dira; hortaz, haien egileek ere sinatu beharko dute datuen babesari buruzko agiria. Jabetza intelektuala eta egiletza egilearenak izanen dira beti. Hogeita bost obra finalisten jabetza intelektuala eta egiletza egilearenak izanen dira beti. Udalak geroan egin ditzakeen kopia inprimatuetan edo bestelako bitarteko digitaletan egilearen izena adierazi beharko du.

10. DATUEN BABESA

Iruñeko Udala da arduradun datuen tratamenduaz bezainbatean. Eskubideak gauzatzeko eta argibide gehiagorako, jo webgunera <https://www.pamplona.es/politica-de-privacidad>

Tratamenduaren xedea proiektua egitea da, haren hedapenean adierazitakoarekin bat. Irudiak bidaltzean horiek ematen dituztenek argi adierazten dute baimena ematen dutela haien datuak adierazitako bitartekoetan tratatu eta argitaratu daitezten.

Norberaren edo hirugarrenen irudiak dituzten argazki edo bideoak bidaltzen dituztenek – hirugarrenen irudirik agertuz gero haien baimena izan behar dute bidalketarako – baimena ematen diote Udalari, eta eskubideak lagatzen, irudi- eskubideak baliatu ditzan honako hauetarako:

- Egindako argazkiak/bideoak edozein euskarritan erreproduzitzeko eskubidea gauzatzeko.
- Argazkiak argitaratu, jendaurrean paratu eta hirugarrenei lagatzeko eskubidea gauzatzeko.



Halaber, adierazten dute ez dela gertatu esku-hartze ez-legitimorik intimitatearen gaineko haien eskubidearen esparruan, eta espresuki egiten diote uko haien eskubide moralen arloko edozein ordainsariri etakalte-ordaini.

14 urtetik beherakoen irudiei dagokienez, haien guraso edo tutoreek bidali beharko dituzte.

10. **SARIAK:** Irabazleei 25 argazki finalistak gogoratzeko liburu bat emango zaie

11. **OHARRAK:** Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek guztiak eta epaimahaiaren epaia guztiz onartzea.

Oinarri hauetan ezarritako betekizunen bat betetzen ez duten argazkiak automatikoki deskalifikatuko dira.

Esaldiak.

"Gizateria da gure benetako nazionalitatea."- Herbert George Wells

"Askatasunarekin amets egitea, justiziarekin, berdintasunarekin, nahiago nuke jada amestu beharrik ez izatea"- Martin Luther King.

"Espero dut azkenean pertsonak ohartzea arraza bakarra dagoela -giza arraza- eta denok garela horren partaideak"- Margaret Atwood

"Mundu hau ez da aldatuko, gu geu aldatzeko prest egon ezean."- Rigoberta Menchu

"Inor ez da jaiotzen beste pertsona bat gorrotatzen haren azalaren kolorearengatik, jatorriarengatik edo erlijioarengatik"- Nelson Mandela